# Bestelako Xedapenak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**4909**

239/2010 DEKRETUA, irailaren 14koa, Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati Plana behin betikoz onartzen duena.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduko Artezpideak –zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean erredaktatu eta bideratu ziren- otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartu ziren behin betikoz (otsailaren 12ko EHAA).

Artezpide horietan ezartzen dira Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak erredaktatzeko esparruak, zeinen artean Igorre Eremu Funtzionala baitago.

Lege horretako 2. eta 11. artikuluen arabera, Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak nahitaez landu beharreko lurralde antolamendurako tresnak dira. Horri dagokionez, artezpideen 22. kapituluko (aplikazio arauei buruzkoa) 7. paragrafoak ezartzen du oso dela garrantzitsua Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak ahalik lehenen aurkeztea, aipatutako artezpideen osagarri izan daitezen hirigintza- eta lurralde-irizpideak zertzerakoan, zeinen helburua izango baita udal-mailako planak era egokiagoan garatu eta, ondorioz, lurralde-koherentzia handiagoa bermatzea Arloko Lurralde Planak formulatzerakoan.

2.– Lurraldearen Antolamendurako Zati-Plan hau formulazio- eta bideratze-prozesu luze baten ondorioa da, zein Lurralde Antolamenduari buruzko Legeko 13. artikuluan aurreikusitakoa baita. Planaren faseak: Aurrerapena, Hasierako Onarpena, Behin-behinekoa eta Behin betikoa. Lurraldeko administrazio publikoek parte hartu dute (tokikoak, foru-mailakoak eta autonomikoak), baita eremu funtzional horretako gizarte-eragile anitzek ere.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko 13.1 artikuluaren arabera Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokie Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati-Plana formulatzeko ekimena, eta horrek derrigorrezko egiten du bi administrazio horien arteko koordinazioa, jarduerok burutzerakoan sor daitezen funtzionalitate gabeziak saiheste aldera.

4.– Hori horrela, Plan horren erredakzioa kontratatzeko esleipena 2000ko abuztuaren 23ko Foru Erabakiz egin zen (2000ko irailaren 14ko BAO), eta,

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**4909**

DECRETO 239/2010, de 14 de septiembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre.

1.– Las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, redactadas y tramitadas al amparo de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, fueron aprobadas definitivamente mediante el Decreto 28/1997, de 11 de febrero y publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco el 12 de febrero.

En dichas Directrices se establecen los ámbitos para la redacción de los Planes Territoriales Parciales entre los que se encuentra el Área Funcional de Igorre.

De conformidad con los artículos 2 y 11 de la referida Ley, los Planes Territoriales Parciales son instrumentos de Ordenación Territorial de necesaria elaboración. En este sentido, el apartado 7 del capitulo 22 de las Directrices, relativo a las Normas de Aplicación señala que se considera muy importante proceder a la formulación, lo antes posible, de los Planes Territoriales Parciales con objeto de aportar criterios urbanísticos y territoriales complementarios a las referidas Directrices que permitan un más ajustado desarrollo de los planes de ámbito municipal y que garanticen una mayor coherencia territorial en la formulación de los Planes Territoriales Sectoriales.

2.– El presente Plan Territorial Parcial se configura como el resultado de un dilatado proceso de formulación y tramitación previsto en el artículo 13 de la Ley de Ordenación del Territorio, con sus correspondientes fases de Avance, Aprobación Inicial, Provisional y Definitiva en el que han participado las distintas Administraciones Públicas territoriales (locales, foral y autonómica) así como un amplio espectro de la sociedad del citado Área Funcional.

3.– De conformidad con el artículo 13.1 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, la iniciativa para la formulación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre corresponde al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia, indistintamente, lo que hace necesaria una coordinación entre ambas Administraciones con el fin de evitar disfuncionalidades a la hora de realizar las correspondientes actuaciones.

4.– Con este fin, la adjudicación de la contratación para la redacción de dicho Plan fue realizada por Acuerdo Foral de 23 de agosto de 2000 (BOB de

erredakzioari jarraipena egiteko, koordinazio mekanismoak ezarri ziren Bizkaiko Foru Aldundiko orduko Hirigintzako Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren artean.

5.– Lurralde Antolamenduari buruzko Legeko 12. artikuluari erantzuten dio Planaren edukiak, eta Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak jaso behar dituen zehaztapenak barnebiltzen ditu. Zenbait neurri ezarri eta jarduera-proposamenak egiten ditu Planak, zeinen helburu nagusia den Eremu Funtzionala bere osotasunean antolatzea.

6.– Arantzazu, Areatza, Bedia, Artea, Zeanuri, Dima, Igorre eta Lemoako udalerriak hartzen ditu bere baitan Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak.

7.– Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati-Planak 16 urteko epea du gauzatzeko, bertan jasoz biztanleriaren, enpleguaren, lur-okupazioaren, garapenaren eta beste ezaugarri batzuen aurreikuspena.

Eremu Funtzional honek oinarrizko lau unitate ditu. Bat: Arratiako harana, Arantzazutik hegoaldera. Kultura- eta natura-balore sendoei eutsi die, eta hirigintzako tipologia berriek zeharo eragin diezaiokete. Planean jasota dago hegoaldeko haranaren ezaugarri hori, eta dotazio xumeak aurreikusten ditu bertarako. Indusiko harana da beste unitate bat, zeinek Arratia hegoaldearekin zeozelango antza baitu. Igorrek osatzen du hirugarren unitatea, eta planean bere barne-egituraketa lortu gura da hirigintzaren aldetik. Bedia eta Lemoaren ondoren, premiarik gehien du bere ingurua berriztatu, berrindartu eta hobetzeko. Laugarren unitatea Bediak eta Lemoak osatzen dute. Lemoako saihesbideak hobekuntza nabarmenak ekarriko dizkio herriari, bai azpiegituren aldetik, bai horien ezaugarrien aldetik. Helburuak: alde batetik, herritarren bizi-kalitatea; eta bestetik, Lemoako Haitzaren eta Ibaizabal ibaiaren gaitasuna naturala bere onera ekartzea.

Planak asmoak sendoak dira: ondare naturala babestea; etorkizunean askotariko lanpostuak eskaintzea; ondare kulturalari balioa ematea; azpiegitura integratuen irudia; dotazio aberasgarrien utopia; eta eskalako herri-guneen aberats-guneen ametsa, zeinak arbasoen kulturaren oinordeko izango diren.

Honako hauek dira planaren helburu orokorrak:

a) Gaur egungo biztanleriari eutsi eta hazkuntza selektiboa indartu.

b) Lurra eraz erabili.

c) Haranaren barrualdeari balioa eman.

d) Garraio jasangarrirako joera.

14 de septiembre de 2000) y, en orden al seguimiento de la redacción, se han establecido mecanismos de coordinación entre el entonces Departamento Foral de Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación Territorial del Gobierno Vasco.

5.– El contenido del Plan da respuesta al artículo 12 de la Ley de Ordenación del Territorio y recoge las determinaciones que deben contener los Planes Territoriales Parciales. El Plan establece una serie de medidas y realiza propuestas de actuación que persiguen, como objetivo primordial, el conseguir una ordenación integral del Área Funcional.

6.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre comprende los términos municipales de Arantzazu, Areatza, Bedia, Artea, Zeanuri, Dima, Igorre y Lemoa.

7.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre tiene un horizonte temporal de 16 años, con sus previsiones de población, empleo, ocupación de suelo, desarrollo etc.

Existen en el área funcional cuatro unidades vitales. Una de ellas es el valle de Arratia desde Arantzazu hacia el sur. Ha conservado grandes valores culturales y naturales y puede verse muy alterado por las nuevas tipologías urbanizadoras. El Plan complementa el carácter de este valle sur con la incorporación de pequeñas dotaciones. Otra unidad es el valle de Indusi, que mantiene ciertos parecidos con el Arratia sur. Igorre es otra de las unidades, el plan trata de lograr su articulación urbana interna. Es el municipio más necesitado de renovación, revitalización y mejora de su entorno tras Bedia y Lemoa. La última unidad la componen Bedia y Lemoa. La variante de Lemoa implicará notables mejoras en la configuración actual de sus infraestructuras y el carácter de las mismas. El objetivo es recuperar su calidad de vida y la capacidad natural de Peña Lemoa y el Ibaizabal.

El Plan es ambicioso en la salvaguarda del patrimonio natural, en el futuro de su oferta de puestos de trabajo de la máxima variedad, en la puesta en valor de su patrimonio cultural, en la imagen de unas infraestructuras integradas, en la utopía de unas dotaciones enriquecedoras y en el sueño de unos núcleos de escala y riqueza urbanas dignos herederos de su cultura.

Los objetivos generales del Plan son los siguientes:

a) Mantenimiento de la población actual y crecimiento selectivo.

b) Uso racional del recurso suelo.

c) Puesta en valor del Fondo de Valle.

d) Acercamiento a un transporte sostenible.

e) Balore naturalak babestu.

f) Baliabide berriztagarriak erabili.

g) Ongizatea eta berrikuntza bultzatu.

8.– Lurralde Antolamenduko Artezpideetan zehaztutako lurralde-esparruaren barruan, plan honek, gainera, EAEko Administrazio Orokorreko sailek eta Bizkaiko Foru Aldundiko sailek sustatutako Alorkako Lurralde Planak barnebiltzeko ahalegina egin du. Alorkako Lurralde Plan hauek hartu dira kontuan:

– EAEko Errepideen Plan Orokorra.

– Bizkaiko Errepide Plana.

– EAEko Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Kantauriko Isurialdea).

– EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurralde Plana.

– EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– Etxebizitzaren Sustapen Publikorako EAEko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Nekazaritza-Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Kultura Ondarearen Lurraldearen Arloko Plana.

9.– EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 12.3 artikuluan ezarritako agirietan zehazten ditu bere ildoak Planak.

10.– Besteak beste Antolamenduaren Arauak jasotzen ditu. Planak araugintzako izaera ematen dien xedapen eta proposamenak jasotzen dituzte arau horiek, eta dekretu honen I. eranskin modura datoz, argitaratuak izan daitezen.

11.– Ingurumen-Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlana ere erantsi zaio Planari. Ingurumenari buruzko arauetan xedatutakoa betez (apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginari buruzkoa; eta EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorra; eta horien garapen arau-bidezkoa, hain zuzen ere, ingurumen eraginaren ebaluazio bateraturako prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua), dekretu honen II. eranskin gisara txertatzen da de-

e) Protección de los valores naturales.

f) Uso de recursos renovables.

g) Impulso del bienestar y la renovación.

8.– Dentro del marco territorial definido por las Directrices de Ordenación del Territorio, este Plan realiza, además, un ejercicio de integración de los diferentes Planes Territoriales Sectoriales promovidos tanto por los diferentes Departamentos de las Administración General de la Comunidad Autónoma como por los Departamentos de las Diputación Foral de Bizkaia. Se han tenido en cuenta los siguientes Planes Territoriales Sectoriales:

– Plan General de Carreteras del País Vasco.

– Plan de Carreteras de Bizkaia.

– Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica).

– Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.

– Plan Territorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Promoción Pública de vivienda de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Patrimonio Cultural de la CAPV.

9.– El Plan concreta sus determinaciones en los documentos establecidos en el artículo 12.3 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

10.– En concreto, recoge entre otros documentos, las Normas de Ordenación, que contienen el conjunto de las disposiciones y propuestas a las que el Plan les confiere carácter normativo y que se acompañan como anexo I al presente Decreto para su publicación.

11.– Así mismo, al Plan se acompaña el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental. En cumplimiento de lo dispuesto en la normativa medioambiental (Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y en su desarrollo reglamentario a través del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de im-

klarazioa, ingurumen-aspektuak Planean txertatzeaz hartutako ebazpenari buruzkoa.

12.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak du eskumena Planaren behin betiko onarpena Jaurlaritzaren Kontseiluari igortzeko, Lurralde Antolamenduari buruzko Legeko 13.9 artikuluan jasotakoaren arabera.

13.– Jaurlaritzaren Kontseilua da, Lurraldea Antolatzeko Legeko 13.10 artikuluan ezarritakoaren arabera, organo eskumenduna Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati-Plana behin betiko onartzeko.

Beraz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak halaxe proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko irailaren 14an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Behin betiko onartzea Igorre Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Antolamendurako Zati-Plana. Planaren Antolamendu Arauek dekretu honen I. eranskina osatzen dute; eta ingurumen aspektuak Planean txertatzeaz hartutako ebazpenari buruzko deklarazioak II. eranskina.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– Lurraldearen Zati-Plana, zelan eta Lurralde Antolamenduari buruzko Legean ezarritakoari jarraiki hierarkia goreneko planeamendu-tresna den, termino berberetan lotuko ditu arloko eta udal-mailako planeamendu-tresnak, zeinek indarreko hirigintza-lege aplikagarrietan ezarritakoak baitira.

Ondorioz, lurralde- eta udal-planeamendua Lurraldearen Zati-Planari lotu eta bere edukiari egokituko zaio, eta erreferentzia izango da bertan jasotako zehaztapenak interpretatu eta aplikatzerakoan.

***Bigarrena***.– Lurraldearen Zati-Plan honen eranskinak Plana osatzen duten elementuak dira, eta araugintzako eta nahitaezko balioa dute, gainerako artikuluek bezalaxe.

***Hirugarrena***.– Egiturazko Egintzak eta Eragiketa Estrategikoak jasotzen dituzten fitxen edukia, fitxotan funtsezko balio loteslea ematen zaien aspektuez gain, artezpidetzat joko da, zein aintzat hartu eta bete egin beharko baita garapenean zehar.

pacto ambiental) se acompaña como anexo II a este Decreto la preceptiva declaración sobre la decisión adoptada en relación a la integración del Plan de los aspectos medioambientales.

12.– El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca es el competente para elevar al Consejo de Gobierno la aprobación definitiva del Plan en virtud de lo recogido en el artículo 13.9 de la Ley de Ordenación del Territorio.

13.– El Consejo de Gobierno es el órgano competente para aprobar definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre a tenor de lo establecido en el artículo 13.10 de la Ley de Ordenación del Territorio.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 14 de septiembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Aprobar definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre cuyas Normas de Ordenación se incluyen como anexo I al presente Decreto y como anexo II, la declaración sobre la decisión adoptada en relación a la integración en el Plan de los aspectos medioambientales.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– El Plan Territorial Parcial, en su condición de instrumento de planeamiento jerárquicamente superior a tenor de lo establecido en la Ley de Ordenación del Territorio, vinculará en sus propios términos a los instrumentos de planeamiento sectorial y municipal establecidos por la legislación urbanística vigente y de aplicación.

En consecuencia, el planeamiento territorial y municipal resulta vinculado por el presente Plan Territorial Parcial, a cuyo contenido deberán adaptarse y que deberá servir de referencia en orden a la interpretación y aplicación de sus determinaciones.

***Segunda***.– Los anexos del presente Plan Territorial Parcial constituyen elemento integrante del mismo y tienen el mismo valor normativo y obligacional que el resto de su articulado.

***Tercera***.– El contenido de las fichas que recogen las Acciones Estructurantes y las Operaciones Estratégicas, con independencia de los aspectos a los que se concede en las mismas un valor de determinación vinculante, tendrá la consideración de directriz que deberá ser observada y respetada en el desarrollo de cada una de ellas.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Lurraldearen arloko planak eta, halaber, planeamendu orokorreko eta udal-detaileko planak formulatu eta onartzeari buruzko prozeduretan, baita horiek berrikusi eta aldatzeari buruzko prozeduretan -betiere Lurraldearen Zati Plan honek indarra hartzean hasierako onarpenik izan ez bada-plan horiei dagozkien agiriak plan honetan jasotako zehaztapenei egokituko zaizkie.

Lurraldearen Zati-Plan honek indarra hartzerakoan indarrean dauden Lurraldearen Arloko Planak Planean xedatutakoari egokituko zaizkio, non eta ez den Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa.

***Bigarrena***.– Igorre Eremu Funtzionalaren barruko udalen –Plan Orokorrak formulatu, berrikusi edo aldatzeko prozesuetan sartutakoen- hirigintza agiriak -Plan honek indarra hartzerakoan hasierako onarpenik ez dutenak- plan honetan jasotako zehaztapenei egokitu beharko zaizkie.

Indarreko Hirigintzako Udal-Planeamendu Orokorra plan honetan xedatutakoari egokitu beharko zaio bi urteko epean, indarrean sartzen denetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabete igaro ondoren jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko irailaren 14an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza
eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– En los procedimientos de formulación y aprobación de los planes territoriales sectoriales y del planeamiento general y de detalle municipal, así como de sus revisiones y modificaciones, en los que no se hubiere otorgado la aprobación inicial en el momento de la entrada en vigor de este Plan Territorial Parcial, los documentos correspondientes a tales planes deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste.

En todo caso, los Planes Territoriales Sectoriales vigentes a la entrada en vigor de este Plan Territorial Parcial se adaptarán a lo dispuesto en el mismo con excepción de lo previsto en la disposición adicional cuarta de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio.

***Segunda***.– Los documentos urbanísticos de los municipios pertenecientes al Área Funcional de Igorre inmersos en procesos de formulación, revisión o modificación de Planes Generales que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor de este Plan, deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste.

En todo caso, el planeamiento urbanístico general municipal vigente deberá de adaptarse a lo dispuesto en este Plan en el plazo de dos años a contar desde su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al mes de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial,
Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

IGORREKO ESKUALDE EGITURAREN LURRALDEAREKIKO ZATI EGITAMUA

ANTOLAMENDU ARAUAK

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Helburua.

Igorreko Eskualde Egituraren Lurraldearekiko Zati Egitamua (Igorreko EEren LZEa) lurraldea antolatzeko tresna da, eta eskualde Egituraren eredua eta egitura zehazten ditu; bertako udalerrietako Hirigintza Arauek eta Egitamuek, Lurralde Egitamu Sektorialek eta Eskualde Egituran eragina duten gainerako jarduketek bete egin beharko dute bertan ezarritakoa.

***2. artikulua.***– Araudia.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamua EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko (indarrean dagoena) 11. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera formulatu da.

2.– Halaber, Lurraldearekiko Zati Egitamua Euskadiko Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan ezarritakoa garatuz eta aplikatuz formulatu da, eta jarraibide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak otsailaren 11n emandako 28/1997 Dekretuaren bidez onetsita daude.

***3. artikulua.***– Aplikaziorako lurralde eremua.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren aplikaziorako lurralde-eremua Igorreko Eskualde Egitura osoa da; hori Lurralde Antolamendurako Jarraibideek mugatzen dute eta I-01 Informazio Planoan («Egitamuaren Eremua») grafiaturik agertzen da.

2.– Lurralde Antolamendurako Jarraibideetako 20. kapituluko 4.2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak otsailaren 11n emandako 28/1997 Dekretuaren bidez onetsitako jarraibideak), Igorreko Eskualde Egituraren barruan Arauotako I. eranskinean («Igorreko Eskualde Egituraren barruko Eremuak») jasotako udalerriak sartzen dira.

***4. artikulua.***– Indarraldiaren baldintzak.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren indarraldia mugagabea izango da; hala ere, aldi baterako programazioa izan eta aldaketak nahiz berrikuspenak egin ahal izango zaizkio, programatuak edo ez.

2.– Betearazpen Programa jaso behar izatearen kalterik gabe (lau urteko aldietan banatuta), Egitamuan jasotako xedapenen denbora-muga hamasei urtekoa da, eta hori, aldi berean, zortzi urteko elkarren atzeko bi fasetan banaturik dago.

ANEXO I

PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL DE IGORRE

NORMAS DE ORDENACIÓN

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

El presente Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre (PTP del AF de Igorre) es el instrumento de ordenación territorial que define la estructura y modelo territorial del Área Funcional, a la que deberán atenerse tanto los Planes y Normas Urbanísticas Municipales, como los Planes Territoriales Sectoriales y demás actuaciones con incidencia en el Área Funcional.

***Artículo 2.***– Base normativa.

1.– El presente Plan Territorial Parcial se formula al amparo de lo establecido en los artículos 11 y siguientes de la vigente Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

2.– Asimismo el Plan Territorial Parcial se formula en desarrollo y aplicación de lo dispuesto en las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco, aprobadas por Decreto 28/1997, de 11 de febrero, del Consejo de Gobierno Vasco.

***Artículo 3.***– Ámbito territorial de aplicación.

1.– El ámbito territorial de aplicación del presente Plan Territorial Parcial se extiende a la totalidad del Área Funcional de Igorre delimitada por las Directrices de Ordenación Territorial y que aparece grafiada en el Plano de Información I-01 «Ámbito del Plan».

2.– De conformidad con el artículo 4.2.3 del Capítulo 20 de las Directrices de Ordenación Territorial, aprobadas por Decreto 28/1997, de 11 de febrero, del Consejo de Gobierno Vasco, el Área Funcional de Igorre comprende los términos municipales relacionados en el anexo I «Municipios incluidos en el Área Funcional de Igorre» de las presentes Normas.

***Artículo 4.***– Condiciones de vigencia.

1.– La vigencia del Plan Territorial Parcial será indefinida, sin perjuicio de su programación temporal y de sus eventuales modificaciones o revisiones, programadas o no.

2.– Sin perjuicio de la obligada inclusión del correspondiente Programa de Ejecución dividido en etapas de cuatro años, las previsiones contenidas en el presente Plan se han efectuado con un horizonte temporal de dieciséis años, a su vez desglosado en dos fases sucesivas de ocho años.

3.– Lurraldearekiko Zati Egitamuan jasotako xedapenak baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerako xedapenen baliozkotasunean, baldin eta horietarikoren bat aplikagarria ez bada (baliogabetu, ezeztatu edo aldaturiko xedapenen bati lotuta egoteagatik edo horren mendekoa izateagatik).

***5. artikulua.–*** Lurraldearekiko zati egitamuaren xedapenak betetzearen jarraipena.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren xedapenak edo aurreikuspenak zein mailatan betetzen diren ikusteko, lau urterik behin Memoria egingo da.

2.– Memoria Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak egingo du; hain zuzen ere, Lurralde Antolamenduaren arloan eskumena duen sailak, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail berberaren lankidetza eskatuko du.

3.– Memoria horretan xedapenak zein mailatan betetzen diren azalduko da, eta identifikaturiko ezegokitzapenak arintzeko edo aldatzeko behar diren proposamenak ere azalduko dira.

4.– Egin ondoren, Memoria Lurralde Antolamenduko Batzordera bidaliko da, hori jakitun gelditzeko.

***6. artikulua.–*** Etetea, aldatzea eta berrikustea.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren indarraldia eteteko, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 3. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

2.– Lurraldearekiko Zati Egitamua berrikusi edo aldatu egin daiteke.

3.– Berrikustea Lurraldearekiko Zati Egitamu orokorrean aldatzea da, eta hori honako honen eraginezkoa izan daiteke:

a) Irizpide berriak hartzea, lurraldearen egiturari edo lurralde-ereduari dagokionez.

b) Lurraldearen egitura edo eredu horren gaineko eragina duten egoera berriak sortzea.

c) Gaitasuna agortzea.

Berrikusteak Lurraldearekiko Zati Egitamu osoa ordeztea eragin dezake.

Lurraldearekiko Zati Egitamua berrikusteko, bete egin behar da EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 13. artikuluan planeamenduko tresna hori formulatzeko eta onesteko ezarrita dagoen prozedura.

Nolanahi ere, zortzi urteko lehenengo fasea amaitu ondoren (indarraldia xehatuta duen fasea), Lurraldearekiko Zati Egitamua berrikusi egingo da.

4.– Berrikustetzat hartzen ez diren Lurraldearekiko Zati Egitamuaren gainerako aldaketa guztiak aldatzetzat hartuko dira.

3.– La nulidad, anulación o modificación de alguna de las determinaciones contenidas en este Plan Territorial Parcial no afectará a la validez de las restantes, salvo que alguna de ellas no resulte aplicable por circunstancias de interrelación o dependencia de aquéllas.

***Artículo 5.–*** Seguimiento del cumplimiento de las previsiones del Plan Territorial Parcial.

1.– A fin de verificar el grado de cumplimiento de las previsiones y determinaciones del Plan Territorial Parcial se elaborará una Memoria cada cuatro años.

2.– La Memoria será elaborada por el Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia competente por razón de la materia de Ordenación del Territorio, recabando en su caso la cooperación del mismo Departamento de Gobierno Vasco.

3.– En dicha Memoria se expondrá el grado de cumplimiento de las determinaciones y, en su caso, las propuestas necesarias en orden a paliar o reformar los desajustes que se hubiesen identificado.

4.– Una vez elaborada, la Memoria será remitida a la Comisión de Ordenación del Territorio para su debido conocimiento.

***Artículo 6.–*** Suspensión, Modificación y Revisión.

1.– El Plan Territorial Parcial podrá ser suspendido en su vigencia conforme a lo dispuesto en el artículo 3 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

2.– El Plan Territorial Parcial podrá ser objeto de Revisión o Modificación.

3.– Se entiende por Revisión la alteración global del Plan Territorial Parcial motivada por:

a) La adopción de nuevos criterios respecto a la estructura del territorio o al modelo territorial.

b) La aparición de nuevas circunstancias sobrevenidas que incidan sobre dicha estructura o modelo territorial.

c) El agotamiento de su capacidad.

La Revisión será susceptible de determinar la total sustitución del Plan Territorial Parcial.

La Revisión del Plan Territorial Parcial se efectuará conforme al procedimiento de la formulación y aprobación de dicho instrumento de planeamiento establecido en el artículo 13 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

En todo caso, operará la Revisión del Plan Territorial Parcial concluida la primera fase de ocho años en las que se desglosa su horizonte temporal de vigencia.

4.– Se entiende por Modificación el resto de supuestos de alteración puntual del Plan Territorial Parcial que no constituyan un supuesto de Revisión.

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege-testu horren 10.10 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuz, Lurraldearekiko Zati Egitamua aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedura beteko da.

Lurraldearekiko Zati Egitamua aldatzeko, bete egingo da abenduaren 9ko 206/2003 Dekretuan ezarritako prozedura (EHAAko 185. zenb.).

***7. artikulua.***– Udal-planeamenduaren iturria.

1.– Lurralde Plan Partzial hau egiteko erabilitako iturria BFAren Garraio eta Hirigintza Saileko Planeamendu GIS izenekoa izan da. 2008ko martxoan eguneratua dago. Nolanahi ere, iturri horretako informazioa indarrean dauden udal-planeamenduetatik lortzen da eta hiru hilez behin eguneratzen da.

2.– Planeamenduaren GIS gutxi gorabeherakoa da, arau-dokumentu lotesle bakarrak egiaz onartzen direnak baitira. Paper euskarrian eginak egoten dira eta Udaletako, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako planeamendu artxibategietan aurkitzen dira. Aipatu dokumentuak elkarren artean homogeneotasunik gorde gabe idazten dira, beraz, udal-planeamenduak erantsiz ez da Bizkaiko lurraldearen informazio urbanistiko jarraitua eta koherentea lortzen. Hala, planeamendu desberdinak interpretatu behar dira, antzeko tratamendua emateko. Lan hori Garraio eta Hirigintza Sailak egiten du.

***8. artikulua.***– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren barruko agiriak eta araudiaren irismena.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuaren barruan honako agiri hauek daude:

a) Informazio Planoak eta Ikerketak.

b) Egitamuaren Azalpen Memoria.

c) Betearazteko Programa, lau urteko etapatan xehatuta, eta Ekonomia eta Finantza Ikerketa.

d) Antolamendu Arauak.

e) Antolamendu Planoak.

f) Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Ikerketa.

g) Planeamenduko Eraginen Agiria.

2.– Igorreko Eskualde Egituraren Lurraldearekiko Zati Egitamuaren arauzko edukia, oro har, bera osatzen duten agiri guztietan jasotako xedapenen multzoak eratzen du.

Hala eta guztiz ere, arauzkoak eta loteslеak «Antolamendu Planoetako eta Arauetako» xedapenak dira.

Conforme a lo establecido en el artículo 14 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, por remisión al artículo 10.10 del mismo texto legal, la Modificación del Plan Territorial Parcial se llevará a cabo por el procedimiento que a tal efecto se establezca por el Gobierno Vasco.

La Modificación del Plan Territorial Parcial se llevará a cabo por el procedimiento establecido en el Decreto 206/2003, de 9 de diciembre (BOPV n.º 185)

***Artículo 7.***– Fuente de planeamiento municipal.

1.– A los efectos de la elaboración del presente Plan Territorial Parcial la fuente utilizada ha sido el GIS Planeamiento del Departamento de Transportes y Urbanismo de la DFB actualizado a fecha de marzo de 2008. En cualquier caso, la información de dicha fuente se obtiene a partir de los planeamientos municipales vigentes y se actualiza trimestralmente.

2.– El GIS de Planeamiento, tiene carácter orientativo, ya que los únicos documentos normativos o vinculantes son los que realmente se aprueban, que están elaborados en soporte papel y obran en los archivos de planeamiento de los Ayuntamientos, Diputación Foral y Gobierno Vasco. Dichos documentos se redactan sin guardar homogeneidad entre ellos, por lo que de la simple adición de los planeamientos municipales no se obtiene una información urbanística continua y coherente del territorio de Bizkaia, siendo necesario para ello interpretar los diferentes planeamientos con el fin de darles un tratamiento similar, labor que realiza el Departamento Foral de Transportes y Urbanismo.

***Artículo 8.***– Documentos constitutivos del Plan Territorial Parcial y alcance normativo.

1.– El presente Plan Territorial Parcial se concreta en los siguientes documentos:

a) Estudios y Planos de Información.

b) Memoria Explicativa del Plan.

c) Programa de Ejecución, desglosado en etapas de cuatro años y Estudio Económico-Financiero.

d) Normas de Ordenación.

e) Planos de Ordenación.

f) Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

g) Documento de Afecciones al Planeamiento.

2.– Con carácter general, el contenido normativo del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre queda configurado por el conjunto de las determinaciones contenidas en la totalidad de los documentos integrantes del mismo.

Ahora bien, son las determinaciones de los «Planos y Normas de Ordenación» las que tienen de manera específica ese carácter normativo y vinculante.

Gainerako agiriak orientaziokoak, erreferentziakoak edo justifikaziokoak dira, eta beraz, lehen aipaturikoekin kontraesanik egonez gero, azken horiek nagusituko dira.

***9. artikulua.***– Interpretazioa.

1.– Lurraldearekiko Zati Egitamuko arauak hitzez hitzezko idazketa eta testuingurua aintzat hartuta interpretatu behar dira, Memorian adierazitako helburuen eta xedeen arabera.

2.– Araudi grafikoaren eta idatzizkoaren artean kontraesanik egonez gero, dokumentazio idatzia nagusituko da.

3.– Agiri grafikoen arteko desadostasunik badago, xehetasun edo eskalarik handienekoa nagusitu egingo zaio txikienekoari. Hala eta guztiz ere, Antolamendu Planoak nagusitu egingo zaizkie gainerako guztiei.

4.– Nolanahi ere, eta Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 397/1999 Dekretuko 2.1.0 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordeak Lurraldearekiko Zati Egitamuko xedapenak interpretatzeko ahalmena dauka.

I. TITULUA

LURRALDE EREDUAREN ZAHAZTAPENA

***10. artikulua.***– Igorreko eskualde egiturako lurralde eredua.

1.– Igorreko Eskualde Egituraren Lurraldearekiko Zati Egitamuko xedapenen (Araudi honetan jasotakoak) helburua, izan ere, proposaturiko lurralde-eredua garatzea da, eta horren xede nagusia Eskualde Egituraren antolamendu integrala eta integratua jasotzea da; aldi berean, udal-jarduketa ahalbidetuko da, horren autonomia kontuan hartuta, Lurraldearekiko Zati Egitamua garatzeko. Xedapenen artean honako hauek jasotzen dira:

a) Antolamenduaren helburuak zehaztea, lurraldearen oraingo egoera, egoera sozioekonomikoa eta bilakatzeko aukerak aztertuta.

b) Azpiegitura handiak euskarritzeko espazioak adieraztea, euren ezaugarriak aintzat hartuta.

c) Planaren eraginpeko eremurako edo zonarako interes komunekoak diren ekipamenduen kokalekua zehaztea.

d) Hirigintza-antolamenduak bete beharreko irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak.

e) Birmoldatu, suspertu edo birgaitu behar diren espazioak zehaztea, horiek ez narriatzeko, edo desberdinak diren (neurri batean edo erabat) erabileretarako suspertu ahal izateko; halaber, horretarako garatu

El resto de los documentos posee un carácter fundamentalmente indicativo, referencial o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquéllos los que prevalezcan.

***Artículo 9.***– Interpretación.

1.– Las Normas de este Plan Territorial Parcial se interpretarán conforme a su redacción literal y en relación con su contexto, atendiendo a los objetivos y finalidades expresados en la Memoria.

2.– En caso de contradicción entre la normativa gráfica y la escrita prevalecerá la documentación escrita.

3.– En caso de discrepancia entre documentos gráficos, tendrá primacía el de mayor sobre el de menor detalle o escala. No obstante, los Planos de Ordenación prevalecerán sobre los restantes.

4.– En cualquier caso y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 2.1.0 del Decreto 397/1999, de 2 de noviembre, de Gobierno Vasco, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco tiene la facultad de interpretación de las determinaciones del Plan Territorial Parcial.

TÍTULO I

DEFINICIÓN DEL MODELO TERRITORIAL

***Artículo 10.***– Modelo territorial del Área Funcional de Igorre.

1.– Las determinaciones del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre, contenidas en la presente Normativa, tienen como finalidad el desarrollo del modelo territorial propuesto, cuyo objetivo principal es la incorporación de una ordenación integral e integrada del Área Funcional posibilitando, a su vez, la actuación municipal, desde su propia autonomía, en desarrollo de este Plan Territorial Parcial. Comprende entre dichas determinaciones las siguientes:

a) Definición de los objetivos de la ordenación a partir del análisis del estado actual del territorio, de la situación socioeconómica y de sus posibilidades de evolución.

b) Señalamiento de los espacios aptos para servir de soporte a las grandes infraestructuras, según sus características.

c) Definición de la ubicación de los equipamientos de interés común para el área o zona objeto del Plan.

d) Criterios, principios y normas generales a los que habrá de atenerse la ordenación urbanística.

e) Definición de los espacios que hayan de ser objeto de remodelación, regeneración o rehabilitación con el fin de evitar su degradación o de conseguir su recuperación para usos, total o parcialmente, distin-

behar diren programak eta horiek gauzatzeko sustatu behar diren neurriak zehaztea.

f) Honako helburu hauetariko baterako erreserbatu beharreko lurzoru-azalerak kuantifikatzea:

– Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, sustapen publikoa zein pribatua dutenak, edo etorkizunean azken prezioa arauketa bereziaren bidez mugatuta eduki dezaketen beste edozein eraikitzea.

– Industria lurzoruaren sustapen publikoa, urbanizaturiko industrialdeak sortu ahal izateko.

g) Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan jasotako xedapenak garatzeko behar diren irizpideak, arauak eta printzipioak.

2.– Lurralde-eredu horren laburpena «Ereduaren Laburpena» izeneko O-06 planoan dago grafikoki zehaztuta; eredua ezartzeko, helburu estrategikoak hartu dira aintzat, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren Memorian azaldutakoaren arabera, eta, horiek formulatzeko, Eskualde Egitura garatzeko beharrizanak hartu dira kontuan.

3.– Lurralde eredu hau, bestalde, oinarrizko baldintzatzat hartzen diren helburu hauen inguruan egituratzen da:

– Eskualde Egiturako biztanleria mantentzea.

– Egoitza-espazioa pilatzea.

– Igorreko Eskualde Egituraren berezitasuna mantentzea eta sustatzea, natura- eta paisaia-balioei dagokienez.

– Garraioen arteko intermodalitate erosoa eta eraginkorra lortzea.

– Bizikletaren eta oinezkoen ibilbideen erabilera sustatzea.

– Energia berriztagarrien aprobetxamendua bultzatzea.

– Biztanleriaren ekipamendu-beharrizanak betetzea.

– Narriaturiko espazioak suspertzea eta erabilera ezegokiak edo aukerakoak dituzten espazioak birmoldatzea.

– Landa-ondarearen eraikuntza-elementuak zaintzea eta balio historikoa edota kulturala duten espazioak birgaitzea.

4.– Igorreko Eskualde Egituraren Lurraldearekiko Zati Egitamuak, aintzat hartuta Lurralde Antolamendurako Jarraibideak eta Egitamuaren helburuak, honako eremu hauetan zatituta zehazten du lurralde-eredua.

a) Inguru Fisikoaren Lurralde Eredua.

b) Ezarkuntza Sistema.

tos, así como de los programas a desarrollar a estos efectos y de las medidas de apoyo encaminadas a incentivar su realización.

f) Cuantificación de las superficies de suelo que hayan de reservarse en todo caso con destino a alguna de las siguientes finalidades:

– Construcción de viviendas de protección oficial, tanto de promoción pública como privada, o cualesquiera otras que en el futuro pudieran ser limitadas en su precio final mediante regulación específica.

– Promoción pública de suelo industrial al objeto de posibilitar la formación de polígonos urbanizados.

g) Criterios, normas y principios necesarios para el desarrollo de las determinaciones contenidas en las Directrices de Ordenación Territorial.

2.– Dicho modelo territorial, cuya síntesis se define gráficamente en el Plano O-06 «Síntesis del Modelo», se ha establecido en atención a los objetivos estratégicos conforme se exponen en la Memoria del Plan Territorial Parcial y que se han formulado atendiendo a las necesidades de desarrollo del Área Funcional.

3.– Este modelo territorial se estructura en torno a los siguientes objetivos con el carácter de condiciones básicas:

– Mantenimiento de la población del Área Funcional.

– Concentración del espacio residencial.

– Mantenimiento y potenciación de la singularidad, en cuanto a valores naturales y paisajísticos, del Área Funcional de Igorre.

– Consecución de una intermodalidad cómoda y eficaz entre transportes.

– Fomento del uso de la bicicleta y de los itinerarios peatonales.

– Fomento del aprovechamiento de energías renovables.

– Satisfacción de las necesidades equipamentales de la población.

– Regeneración de los espacios degradados y remodelación de los espacios con uso inadecuado o de oportunidad.

– Preservación de elementos edificatorios del patrimonio rural y rehabilitación los espacios con valor histórico y/o cultural.

4.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre, considerando las determinaciones de las Directrices de Ordenación Territorial y los objetivos del propio Plan, define el modelo territorial dividido en las siguientes áreas:

a) El Modelo Territorial del Medio Físico.

b) El Sistema de Asentamientos.

c) Azpiegituren Lurralde Eredua.

d) Ekipamenduen Lurralde Eredua.

e) Esku hartzeko Estrategiak.

II. TITULUA

INGURU FISIKOAREN LURRALDE EREDUA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***11. artikulua.***– Inguru fisikoaren definizioa.

1.– Inguru Fisikoa, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, Igorreko Eskualde Egituraren barruko lurzoru osoa da, lurzoru hori Egitamuan zehazturiko lurralde-eredua euskarritzen eta proiektatzen duen elementutzat hartuta.

2.– Esparru horri dagokionez, titulu honetan sailkatzeko moduko espazio bakartzat, indarreko planeamenduak hiri-lurzorura edo lurzoru urbanizagarrira atxikitzen ez duen espazioa soilik hartzen du LZEak, edo udal-planeamenduak azpiegituretarako nahiz sistema orokorretarako erreserbetara eta landagunearen irudira atxiki gabeko espazioa.

***12. artikulua.***– Antolaketa orokorra.

1.– Inguru Fisikoaren Antolamendu Orokorraren proposamena Lurraldearekiko Zati Egitamuaren Memorian azaltzen da.

2.– Babes edo lotura maila bereizten da, eremuaren balio naturalen arabera:

– Babes Handiko Lurzoruak.

– Gainazaleko Uren Babeserako Lurzoruak.

– Babeseko Lurzoruak.

3.– Babes mailaren arabera bilduta, antolamendu-kategoriak ezartzen dira:

a) Babes Handiko Lurzoruetan honako kategoria hauek bereizten dira:

– Babesturiko espazio naturalak.

– Zuhaitz bereziak.

– Landaredia autoktono interesgarriko eremuak.

– Gune hezeak.

b) Gainazaleko urak babesteko lurzoruek Gainazaleko Uren Babes kategoria osatzen dute.

c) Babeseko Lurzoruetan, honako kategoria eta azpikategoria hauek bereizten dira:

– Basokoa.

– Nekazaritzakoa nahiz abeltzaintzakoa eta landazabalekoa.

c) El Modelo Territorial de Infraestructuras.

d) El Modelo Territorial de Equipamientos.

e) Las Estrategias de Intervención.

TÍTULO II

MODELO TERRITORIAL DEL MEDIO FÍSICO

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 11.***– Definición del medio físico.

1.– El Medio Físico se define, a los efectos del Plan Territorial Parcial, como la totalidad del suelo comprendido dentro del Área Funcional de Igorre en cuanto elemento que soporta y sobre el cual se proyecta el modelo territorial definido por el Plan.

2.– Ante este marco el PTP solo recoge como espacio a categorizar en este título aquel espacio no adscrito por el planeamiento vigente al suelo urbano ni urbanizable, ni a la figura de núcleo rural, ni a los espacios sujetos a reservas para infraestructuras y sistemas generales por el planeamiento municipal. Tampoco se contemplan aquellos suelos ocupados por las propuestas del propio Plan.

***Artículo 12.***– Ordenación general.

1.– La propuesta de Ordenación general del Medio físico se describe en la memoria del presente Plan Territorial Parcial.

2.– Se establece una distinción del grado de protección o vinculación en virtud de los valores naturales del ámbito:

– Suelos de Alta Protección.

– Suelos de Protección de Aguas Superficiales.

– Suelos de Protección.

3.– Agrupadas según el grado de protección se establecen las categorías de ordenación:

a) En los Suelos de Alta Protección se distinguen las siguientes categorías:

– Espacios naturales protegidos.

– Los árboles singulares.

– Áreas de vegetación autóctona de interés.

– Los Humedales.

b) Los suelos de protección de aguas superficiales constituyen en sí mismos la categoría de Protección de Aguas Superficiales.

c) En los Suelos de Protección se distinguen las siguientes categorías y subcategorías:

– Forestal.

– Agroganadera y campiña.

– Balio estrategiko handiko nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa.

– Trantsizioko landa-paisaia.

4.– Inguru Fisikoaren Antolamendu Orokorrerako proposamena, gainera, gainjarritako baldintzatzaileekin eta inguru naturaleko osagai aipagarriekin osatzen da.

5.– Antolaketako kategorien Antolamendu Orokorrerako proposamen grafikoa eta inguru naturaleko osagai aipagarriak O-01.A planoan jasota daude («Inguru Fisikoaren Antolamendua»).

Gainjarritako baldintzatzaileen antolamendu orokorraren proposamen grafikoa O-01.C planoan jasota dago («Inguru Fisioaren gaineko Eragin Sektorialak»).

II. KAPITULUA
ANTOLAKETA KATEGORIAK

***13. artikulua.***– Kontzeptua eta definizioa.

3.– Inguru naturaleko osagai aipagarriak «Inguru Fisikoaren Antolamendua» izeneko O-01.A planoan identifikaturik daude, eta, aldi berean, bi taldetan banatzen dira, euren berezitasunen arabera:

a) Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten guneak.

b) Zuhaitz interesgarriak.

***31. artikulua.***– Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten guneak.

1.– Interes Geologikoa eta Geomorfologikoa duten guneak izango dira, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, euren baldintza geologikoak eta geomorfologikoak aintzat hartuta babesa merezi duten eremuak; baita, arrarotasunaren, ikusgarritasunaren, edertasunaren eta berezitasunaren eraginez, Egitamuak ondare geologikoaren edo geomorfologikoaren barruko fenomeno adierazgarrienen aztarnatzat hartzen dituen eremuak ere.

2.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak halako guneak daudela esan du; gune horiek ikerketa zehatza behar dute, eta planeamendu orokorrak edo garapenekoak, berriz, eremu horien eta euren babes-inguruaren mugaketa eta behin betiko antolamendua egingo ditu.

3.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak Interes Geologikoa eta Geomorfologikoa duten Guneak identifikatzen ditu; horiek Arauotako IV. eranskinean aipaturik eta «Inguru Fisikoaren Antolamendua» izeneko O-01.A planoan identifikatuta daude.

***32. artikulua.***– Zuhaitz interesgarriak.

1.– Zuhaitz Interesgarriak izango dira, Lurraldearekiko Zati Egitamu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, Eusko Jaurlaritzaren 265/1995 Dekretuan halakotzat hartuta egon ez arren euren ezaugarrien ondorioz babesa merezi dutenak.

2.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak halako zuhaitzak daudela esan du; gune horiek ikerketa zehatza behar dute, eta planeamendu orokorrak edo garapenekoak, berriz, eremu horien eta euren babes-

1.– A efectos del presente Plan Territorial Parcial, los componentes notables del medio natural delimitan o señalan con carácter abierto puntos de interés de elevado valor ambiental, naturalístico y ecológico, o de importante relevancia de temática específica y que se integran desde su singularidad en el patrimonio natural del área Funcional.

2.– Se corresponden con enclaves en los que se presume que habitan especies de gran interés, sistemas geomorfológicos, y otros ecosistemas naturales, que precisarán de un estudio pormenorizado que los analice siendo el planeamiento general o de desarrollo el encargado de llevar a cabo, en su caso, la delimitación de un ámbito y su entorno de protección así como su ordenación definitiva.

3.– Los componentes notables del medio natural se identifican en el Plano 0-01.A «Ordenación del medio físico» y se subdividen a su vez en dos grupos de acuerdo con sus propias especificidades:

a) Puntos de interés geológico y geomorfológico.

b) Ejemplares arbóreos de interés.

***Artículo 31.***– Puntos de interés geológico y geomorfológico.

1.– Tiene la condición de Puntos de Interés Geológico y Geomorfológico a los efectos del presente Plan Territorial Parcial, aquellas áreas merecedoras de protección, en razón de sus específicas condiciones geológicas y geomorfológicas, así como aquellas áreas que por su rareza, espectacularidad, belleza y singularidad, se consideran por el Plan como vestigios de los fenómenos más representativos del patrimonio geológico o geomorfológico.

2.– El presente Plan Territorial Parcial indica la existencia de dichos enclaves y se corresponden con enclaves que precisaran de un estudio pormenorizado que los analice siendo el planeamiento general o de desarrollo el encargado de llevar a cabo, en su caso, la delimitación de un ámbito y su entorno de protección así como su ordenación definitiva.

3.– El presente Plan Territorial Parcial identifica los Puntos y Áreas de Interés Geológico y Geomorfológico del Área Funcional, relacionados en el anexo IV de las presentes Normas, e identificados en el Plano O-01.A «Ordenación del Medio Físico».

***Artículo 32.***– Ejemplares arbóreos de interés.

1.– Tendrán tal condición a los efectos del presente Plan Territorial Parcial los ejemplares de árboles que no estando declarados en el Decreto 265/1995 del Gobierno Vasco como árboles de interés, por sus características destacables merezcan una protección.

2.– El presente Plan Territorial Parcial indica la existencia de dichos ejemplares que precisaran de un estudio pormenorizado que los analice siendo el planeamiento general o de desarrollo el encargado de

inguruaren mugaketa eta behin betiko antolamendua egingo ditu.

3.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak «Inguru Fisikoaren Antolamendua» izeneko O-01.A planoan jasotakoak hartzen ditu Zuhaitz Berezitzat.

V. KAPITULUA
INGURU NATURALAREN GAINEKO BESTE ERAGIN BATZUK: ERAUZKETA JARDUERAK

***33. artikulua.***– Erauzketa jarduerak.

1.– Eskualde Egitamuaren barruan diharduten harrobien jarduera indarreko legeria sektorial aplikagarriaren edo horren ordezkoaren bidez arautuko da: Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legea, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua nahiz berori garatu duen Araudia, eta erauzketa jardueren eraginpeko Espazio Naturala Suspertzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretua.

2.– Erauzketa jarduerak egitearen eraginpeko zonen eta beste erabilera batzuetarako erabil daitezkeen zonen mugaketa udal-planeamenduak egingo du, LAJetan adierazitakoaren arabera.

3.– Ingurumeneko eraginaren aitorpena duten harrobiek aitorpen horretan ezarritakoa bete beharko dute, bai harrobiak ustiatzeko eremua mugatzerakoan, bai horiek lehengoratzerakoan.

4.– Martxan ez dauden edo erabilerarik ez duten harrobiak, bestalde, erauzketa jardueren eraginpeko Espazio Naturala Suspertzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan edo horren ordezko legeren batean ezarritakoaren arabera suspertuko dira.

VI. KAPITULUA
INGURU FISIKOAREN BARRUKO EKINTZAK

***34. artikulua.***– Inguru fisikoaren barruko ekintzak.

1.– Igorreko Lurralde Plan Partzialak proposatutako lurralde-ereduak, kategoria desberdinei dagokien araudia aplikatzea alde batera utzi gabe, Ingurune Fisikoari lotuta hurrengo ekintzak sartzen ditu:

– Erabiltzen ez diren harrobiak suspertzea, espazio horien Ingurumen Hobekuntzarako, aurreko artikuluko 3. puntuan aipaturiko Dekretuan ezarritakoaren arabera.

– Igarobide Ekologikoen, Nagusien edo Eskualdekoen eta Bigarren Mailakoen Sistema Handia ezartzea

llevar a cabo, en su caso, la delimitación de un ámbito y su entorno de protección así como su ordenación definitiva.

3.– El presente Plan Territorial Parcial incluye como Ejemplares Arbóreos de Interés los identificados en el Plano 0-01.A «Ordenación del Medio Físico».

CAPÍTULO V
OTRAS AFECCIONES AL MEDIO NATURAL: ACTIVIDADES EXTRACTIVAS

***Artículo 33.***– Actividades extractivas.

1.– Las canteras que se encuentren activas dentro del Área Funcional, verán regulada su actividad a través de la legislación sectorial vigente aplicable o la que en su defecto le sustituya: Ley 22/1973, de 21 de julio, de Minas, Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y su Reglamento de Desarrollo y Decreto 115/2000, de 20 de junio, sobre Restauración del Espacio Natural afectado por las actividades extractivas.

2.– La delimitación de las zonas afectadas por la realización de actividades extractivas así como las que pudieran dedicarse a estos usos, será establecida por el planeamiento municipal, tal y como indican las DOT.

3.– Las canteras que cuenten con declaración de impacto ambiental, deberán ajustarse a lo establecido en dicha declaración, tanto para delimitar el área de explotación de las canteras como para la restauración de las mismas.

4.– Las canteras que se encuentren inactivas o en desuso, se recuperarán de acuerdo a lo establecido en el Decreto 115/2000, de 20 de junio, sobre Restauración del Espacio Natural afectado por las actividades extractivas o la que en su defecto le sustituya.

CAPÍTULO VI
ACCIONES EN EL MEDIO FÍSICO

***Artículo 34.***– Acciones en el medio físico.

1.– El modelo territorial propuesto por el Plan Territorial Parcial de Igorre, sin perjuicio de la aplicación normativa correspondiente a las diferentes categorías, incluye las siguientes acciones vinculadas al Medio Físico:

– Recuperación de las Canteras en desuso en orden a la Mejora Ambiental de tales espacios, de acuerdo al Decreto indicado en el punto 3 del artículo anterior.

– Implantación con carácter de recomendación de un Gran Sistema de Corredores Ecológicos, unos

(gomendiotzat), Igorreko Eskualde Egiturako balio ekologikoak mantendu ahal izateko.

– Igorreko Eskualde Egituran landaredia autoktonoko espezieak indartzea, Eskala Txikiko Igarobideak sortzeko gomendioa emanez.

– Ibai Igarobide Ekologikoa indartzea, ibilguaren eta ibaiertzen ingurumen-osagaiak kontserbatzeko eta suspertzeko.

2.– Ekintza horiek Egitamuaren memorian garaturik daude, eta «Inguru Fisikoaren barruko Ekintzak» izeneko O-01.B planoan identifikatzen dira.

VII. KAPITULUA
SARE BERDEA

***35. artikulua.***– Sare Berdearen definizioa.

1.– Igorreko Eskualde Egituraren Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, Sare Berdea biztanleentzat «lurraldearen iragazkortasuna» sustatzeko sistema integratua da; horri dagokionez, hiritarrek naturaz gozatzeko mekanismoak bilatuko dira, kasuan kasuko espazioen bokazioarekiko modu bateragarriak; besteak beste, paisaia kontserbatzeko jarduerak bultzatuko dira, baita paisaiaren behaketa eta sarbide publikoa ere; izan ere, paisaia lurralde-ondaretzat eta, aldi berean, baliabidetzat hartuko da.

2.– Sistema horrek honako elementu hauek ditu:

– Gainazalekoak.

– Linealak.

– Zehatzak.

3.– Igorreko Eskualde Egiturako Sare Berdearen sistema integratuko elementuen kudeaketa integratua egiteko, elementu horiek bi eremutan biltzen dira:

– Paisaiari loturiko Ibai Eremua: haranaren behealdeko maila.

– Eremu Naturala: haranaren goialdeko eta erdiko maila.

***36. artikulua.***– Pasaiari lotutako ibai eremua.

1.– Paisaiari loturiko Ibai Eremua, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, nekazaritzaren, uraren, paisaiaren eta kulturaren aldetik interesa duen udalerriz gaindiko eremua da; Ibaizabalen, Arratiaren eta Indusiren haran-hondoan zehar kokaturik dago, Igorreko Eskualde Egituran, eta aipagarriak dira bertako balio naturalak, kulturalak eta landatarrak.

2.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak Sare Berdearen sistema integratuko elementu hauek identifikatzen ditu Paisaiari loturiko Ibai Eremuan («Sare Berdea» izeneko O-01.D planoan grafiatuta):

a) Gainazalekoak:

Principales o Regionales y otros Secundarios, en orden a lograr el mantenimiento de los valores ecológicos del Área Funcional de Igorre.

– Fortalecimiento de las especies de vegetación autóctona en el Área Funcional de Igorre recomendando la creación de Corredores de Pequeña Escala.

– Fortalecimiento del Corredor Fluvial Ecológico para conservar y recuperar las componentes medioambientales del cauce y sus márgenes.

2.– Las Acciones anteriores se encuentran desarrolladas en la memoria del Plan, y se identifican en el Plano O-01.B «Acciones en el Medio Físico».

CAPÍTULO VII
MALLA VERDE

***Artículo 35.***– Definición de malla verde.

1.– A efectos del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Igorre, la Malla Verde se define como el sistema integrado destinado a propiciar la «permeabilidad del territorio» a la población, buscando mecanismos para permitir el disfrute de la naturaleza por los ciudadanos de forma compatible con la vocación de los diferentes espacios, fomentando prácticas conducentes a la conservación del paisaje, promocionando la contemplación y el acceso público respetuoso al paisaje, entendido a un tiempo como patrimonio territorial y como recurso.

2.– Dicho sistema se compone por los siguientes tipos de elementos:

– Superficiales.

– Lineales.

– Puntuales.

3.– En orden a una gestión integrada de los elementos del sistema integrado de la Malla Verde en el Área Funcional de Igorre, éstos se agrupan, a su vez, en dos ámbitos:

– Ámbito Fluvial Paisajístico: nivel bajo de la sección del valle.

– Ámbito Natural: nivel alto e intermedio de la sección del valle.

***Artículo 36.***– Ámbito fluvial paisajístico.

1.– A los efectos del presente Plan Territorial Parcial, el Ámbito Fluvial Paisajístico de la Malla Verde se define como el área de interés agrícola, hidráulico, paisajístico y cultural de ámbito supramunicipal localizado a lo largo del fondo de valle del Ibaizabal, Arratia e Indusi en el Área Funcional de Igorre, que destaca por sus valores naturales, rurales y culturales.

2.– El Plan Territorial Parcial identifica los siguientes elementos del sistema integrado de la Malla Verde pertenecientes al Ámbito Fluvial Paisajístico, grafiados en el Plano O-01.D «Malla Verde»:

a) Superficiales:

– Haran-hondoko belardiak.

– Ibilgua eta ibaiertzak.

b) Linealak:

– Paisaiari loturiko ibai-ibilbidea.

c) Zehatzak:

– Ibilguari loturiko eraikinak eta instalazioak.

– Ibilguari loturiko kirol- eta jolas-ekipamenduak.

– Haran-hondoan kokaturiko zentro didaktikoak eta landa-inguruaren identifikaziokoak.

3.– Paisaiari loturiko Ibai Eremuaren antolamenduak errespetatu egin behar ditu Lurraldearekiko Zati Egitamuan ezarritako Gainjarritako Baldintzatzaileen Antolamendu Kategorien eraginezko mugak.

4.– LZEaren Sare Berdearen sistema integratuko elementuen proposamena, artikulu honetako 2. puntuan aipatutakoa, paisaiari loturiko ibai-eremu honetan, eraginpeko udalerrien udal-planeamenduak garatu ahal izango du, betiere inguru fisikoaren barruko balio naturalen kontserbazioaren eta horien gaineko gutxieneko esku-hartzearen printzipioa mantenduz.

5.– Balio natural handiko Paisaiari loturiko Ibai Eremu honetan, LZEak «Paisaiari loturiko Ibai Igarobidearen» proposamen integrala jasotzen du; gainera, esku-hartze ahalik eta txikienaren aldeko apustua egin eta «Paisaiari loturiko Ibai Ibilbidea» eskaintzen du; horrek, esku-hartze ahalik eta txikienarekin, biztanleriari inguru horretaz gozatzeko aukera ematen dio, eta udal-planeamenduei zenbait ekintza proposatzen die, horren balioa sustatzeko, paisaiara hurbiltzeko Sare Berdeko elementutzat; aldi beran, kontserbatu egiten du bere balio ekologikoa eta naturala. «Paisaiari loturiko Ibai Ibilbidea» bat dator, tarte batzuetan, Aukerako Mugikortasun Sarearekin, eta tarte horietan eginkizun bikoitza dauka, Sare berdearen barruko elementua eta, aldi beran, Aukerako Mugikortasun Ereduaren barruko elementua baita.

6.– Paisaiari loturiko Ibai Eremuan, eraginpeko udalerriek antolamendu integratua egingo dute, jarraitasuna bermatzeko.

7.– Helburu nagusia, izan ere, proposamenen antolamendu xehatua eraginpeko udalerri guztiek batera egitea da.

***37. artikulua.***– Eremu naturala.

1.– Sare Berdeko Inguru Naturala, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, ingurumen balioak eta antropizazio maila baxua aintzat hartuta Naturaz gozatzeko espazioa den eremua da, eta horri Lurral-

– Los prados de fondo de valle.

– El cauce fluvial y sus márgenes.

b) Lineales:

– El itinerario fluvial paisajístico.

c) Puntuales:

– Edificaciones e instalaciones asociadas al cauce fluvial.

– Los equipamientos deportivos y de recreo ligados al cauce fluvial.

– Centros didácticos y de interpretación del medio rural ubicados en el fondo de valle.

3.– La ordenación del Ámbito Fluvial Paisajístico deberá respetar las limitaciones en su caso derivadas de las Categorías de Ordenación de los Condicionantes Superpuestos establecidos por el presente Plan Territorial Parcial.

4.– La propuesta de elementos del sistema integrado de la Malla Verde del PTP, mencionada en el punto 2 del presente artículo, en este ámbito fluvial paisajístico podrá ser desarrollada por el planeamiento municipal de los Ayuntamientos implicados, manteniendo siempre el criterio de mínima intervención y conservación de los valores naturales del medio físico.

5.– El PTP reconoce en este Ámbito Fluvial Paisajístico de gran valor natural, la propuesta integral del «Corredor Fluvial Paisajístico «apostando por una intervención mínima, proporcionando un «Itinerario Fluvial Paisajístico» que permita el disfrute de este medio por parte de la población, recomendando a los planeamientos municipales que propongan acciones a fin de potenciar su valor como elemento de la malla verde de acercamiento al paisaje al mismo tiempo que conserva su valor ecológico y natural. Este «Itinerario Fluvial Paisajístico», es coincidente en algunos tramos con la Red de Movilidad Alternativa, en los cuales cumple la doble función como elemento constituyente de la Malla Verde y del Modelo de Movilidad Alternativa.

6.– Este Ámbito Fluvial Paisajístico se deberá ordenar de modo integrado por parte de los Ayuntamientos implicados, garantizando la continuidad.

7.– Prioritariamente se tratará de que la ordenación pormenorizada de las propuestas se realice de forma conjunta por parte de los Ayuntamientos implicados.

***Artículo 37.***– Ámbito natural.

1.– A los efectos del presente Plan Territorial Parcial, el Ámbito Natural de la Malla Verde se define como el área que, por sus valores ambientales y su bajo nivel de antropización, constituye un espacio de

dearekiko Zati Egitamuak lurraldea egituratzeko eginkizuna ematen dio.

2.– Lurraldearekiko Zati Egitamuak Eremu Naturaleko Sare Berdean integraturiko sistemako elementu hauek identifikatzen ditu («Sare Berdea» izeneko O-01.D Planoan grafiatuta):

a) Gainazalekoak:

– Babesturiko Eremu Naturalak.

– Malda erdiko belardiak.

– Bitarteko Landa Ingurua.

b) Linealak:

– Lurraldean sartzeko ibilbideak.

c) Zehatzak:

– Jolas-eremuak.

– Ohiko eraketa geologikoak.

– Gailur nagusiak.

3.– Eremu Naturalaren antolamenduak errespetatu egingo ditu Lurraldearekiko Zati Egitamuak ezarritako Antolamendu Kategorien eta Gainjarritako Baldintzatzaileen ondoriozko kategoriak.

4.– LZEaren Sare Berdearen sistema integratuko elementuen proposamena, artikulu honetako 2. puntuan aipatutakoa, paisaiari loturiko ibai-eremu honetan, eraginpeko udalerrien udal-planeamenduak garatu ahal izango du, betiere inguru fisikoaren barruko balio naturalen kontserbazioaren eta horien gaineko gutxieneko esku-hartzearen printzipioa mantenduz.

5.– LZEak esku-hartze ahalik eta txikiena egin nahi du Eremu Naturalean; Lurraldean Sartzeko Ibilbideak lehendik dauden bideetan oinarritzen dira eta udal-planeamenduei ekintzak proposatzeko gomendioa egiten zaie, paisaiari hurbiltzeko sare berdeko elementutzat duten balioa sustatzeko eta, aldi berean, euren balio ekologikoa nahiz naturala kontserbatzeko.

6.– Eremu Naturala modu integratuan antolatu beharko dute eraginpeko udalek, jarraitasuna bermatzeko.

7.– Helburu nagusia, izan ere, proposamenen antolamendu xehatua eraginpeko udalerri guztiek batera egitea da.

***38. artikulua.–*** Flora eta fauna.

1.– Beharrezkoa izango da Bisoi europarrarentzako (Dima eta Artekoa kokalekuak) Interes Bereziko Aldeetan egitekoak diren jardunetarako proposamen berrietan, garapenerako planek eta proiektuek Foru Organo eskudunaren aginduzko txostena izatea, Bizkaiko Lurralde Historikoan ur-ipurtatsaren edo bisoi europarraren (Mustela lutreola) kudeaketarako Plana

disfrute de la Naturaleza, y al que el Plan Territorial Parcial confiere una función estructurante del territorio.

2.– El Plan Territorial Parcial identifica los siguientes elementos del sistema integrado de la Malla Verde pertenecientes al Ámbito Natural, grafiados en el Plano O-01.D «Malla Verde»:

a) Superficiales:

– Los Espacios Naturales Protegidos.

– Los prados de media ladera.

– El Entorno Rural Intermedio.

b) Lineales:

– Los itinerarios de acceso al territorio.

c) Puntuales:

– Las áreas recreativas.

– Las formaciones geológicas características.

– Las cimas principales.

3.– La ordenación del Ámbito Natural deberá respetar las limitaciones en su caso derivadas de las Categorías de Ordenación y de los Condicionantes Superpuestos establecidos por el presente Plan Territorial Parcial.

4.– La propuesta de elementos del sistema integrado de la Malla Verde del PTP, mencionada en el punto 2 del presente artículo, en este ámbito natural podrá ser desarrollada por el planeamiento municipal de los Ayuntamientos implicados, manteniendo siempre el criterio de mínima intervención y conservación de los valores naturales del medio físico.

5.– El PTP apuesta en este Ámbito Natural por una intervención mínima, proporcionando unos Itinerarios de Acceso al Territorio que se basan en caminos existentes recomendando a los planeamientos municipales que propongan acciones a fin de potenciar su valor como elemento de la malla verde de acercamiento al paisaje al mismo tiempo que conserva su valor ecológico y natural.

6.– Este Ámbito Natural se deberá ordenar de modo integrado por parte de los Ayuntamientos implicados, garantizando la continuidad.

7.– Prioritariamente se tratará de que la ordenación pormenorizada de las propuestas se realice de forma conjunta por parte de los Ayuntamientos implicados.

***Artículo 38.–*** Flora y fauna.

1.– En las nuevas propuestas de actuaciones coincidentes con Áreas de Especial Interés para el Visón europeo (asentamientos de Dima y Artea) será obligatorio que los planes y proyectos de desarrollo cuenten con el preceptivo informe del Órgano Foral competente tal y como se establece en la Orden Foral 118/2006 por la que se aprueba el Plan de Gestión

onartzen duen 118/2006 Foru Aginduan ezartzen denaren arabera.

2.– Arriskuan diren Espezieen Euskal Katalogoko espezientzat emandako agindu eta neurriak betetzeak baldintzatuko ditu LZEek proposatutako jarduerak, bisoi europarraren eta Diphasiastrum alpinum eta Ranunculus amplexicaulis flora espezieen kasuan bezala, Kudeaketa Plan bat baitute onartuta.

III. TITULUA

EZARKUNTZA SISTEMA

***39. artikulua.***– Ezarkuntza sistemaren definizioa eta zehaztapenak.

1.– Ezarkuntza Sistema, Lurraldearekiko Zati Egitamuaren ondoreetarako, Igorreko Eskualde Egituraren barruan hirigintza-ekintzari loturik dagoen lurzoru osoa da, giza ezarkuntzaren euskarri fisikotzat, Egitamuan zehazturiko Lurralde Ereduaren arabera.

2.– Dokumentazio grafikoan, oinarrizko informazioa titulupean, informazio modura, udalplaneamenduaren egoera azaltzen da. Horrek ez du esan nahi LPPk indarreko planeamendua berraztertzen edo aldatzen ez uztea; are gehiago, lurzoru horietan garapen urbanistikoak eransten edo deuseztatzen saiatuko litzateke, proposatutako ereduaren helburuak betetzeko.

3.– Ezarkuntza Sistemako informazio grafikoa «Ezarkuntzen Lurralde Eredua» izeneko O-02.A1 eta O-02.A2 planoetan jasota dago, baita «Ezarkuntza Sistema» izeneko O-02.B1 eta O-02.B2 planoetan ere.

I. KAPITULUA
EGOITZA EZARKUNTZEN SISTEMA

***40. artikulua.***– Ereduaren helburu orokorrak.

1.– Lurzoruaren (baliabidea) kontsumoa geldiaraztea.

LZEak lurzoruaren kontsumoa geldiaraztea proposatzen du, azken urteotako joera iraulita. LZEaren estrategian, aintzat hartzen da oraingo etxebizitzaparkearen ahalmena, eta eraikitako ondarearen optimizazioa sustatzen da, lehentasunezko esku-hartze modutzat, lurzoru berriak okupatu barik, kontuan hartuta lurraldearen oraingo harrera-gaitasuna. Beste alde batetik, indarreko planeamenduaren optimizazioa sustatu behar da, lurzorurik gehien kontsumitzen duten erabilera-intentsitateak berrikusita eta horiek ingurura egokituta, lurzorua aurreztu ahal izateko.

2.– Espazioan integraturiko jarduera ekonomikoaren eta egoitzaren eredu mistoa sustatzea.

del Visón europeo (Mustela lutreola) en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2.– Las actuaciones propuestas por el PTP quedan condicionadas al cumplimiento de las determinaciones y medidas para las especies del Catálogo Vasco de Especies Amenazadas que cuentan con un Plan de Gestión aprobado como es el caso del visón europeo y de las especies de flora Diphasiastrum alpinum y Ranunculus amplexicaulis.

TÍTULO III

SISTEMA DE ASENTAMIENTOS

***Artículo 39.***– Definición y determinaciones del sistema de asentamientos.

1.– El Sistema de Asentamientos se define, a los efectos del Plan Territorial Parcial, como la totalidad del suelo ligado a la acción urbanística dentro del Área Funcional de Igorre en cuanto soporte físico del asentamiento humano según el Modelo Territorial definido por el Plan.

2.– En la documentación gráfica, bajo la denominación de Información básica, se aporta, con carácter informativo, la situación del Planeamiento municipal. Ello no significa que el PTP impida la modificación o revisión del Planeamiento vigente, más bien trataría de incorporar o eliminar los desarrollos urbanísticos en estos suelos de forma que se cumplan los objetivos del modelo propuesto.

3.– La información gráfica del Sistema de Asentamientos se encuentra en los Planos O-02.A1 y O-02.A2 «Modelo Territorial de Asentamientos», así como en los planos O-02.B1 y O-02.B2 «Sistema de Asentamientos».

CAPÍTULO I
SISTEMA DE ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES

***Artículo 40.***– Objetivos Generales de Modelo.

1.– Frenar el consumo del recurso suelo.

El PTP se propone frenar el consumo de suelo, invirtiendo la tendencia de los últimos años. La estrategia del PTP se centra en la apuesta por considerar el potencial del parque de viviendas existente, abogando por la optimización del patrimonio edificado, como modo de intervención preferente frente a la ocupación de nuevos suelos, dado lo limitado de la capacidad de acogida actual del territorio. Por otro lado, se ha de potenciar la optimización del planeamiento vigente revisando las intensidades de uso más consumidoras de suelo y adecuarlas al entorno, con el consiguiente ahorro de suelo.

2.– Fomentar el modelo mixto con actividad económica y residencia integradas espacialmente.

LZEak proposatzen duen ereduak egindako apustuaren arabera, egoitza-erabilera orokorra duten lurzoru berri guztiek gutxienez % 10eko egoitza-eraikigarritasuneko erreserba edukiko dute, jarduera ekonomikoak kokatu ahal izateko; horien artean, beste batzuekin bateragarria den industria-jarduera ez ezik, merkataritzako nahiz bulegoko hirugarren sektoreko jarduerak eta zuzkiduren arloko beste zerbitzu batzuk ere sartzen dira; esate baterako, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola nahiz kultura eta horien antzeko beste batzuk.

3.– Biztanleria mantentzea eta lurralde-oreka lortzea. Hirien sistema indartzea.

LZEak Eskualde Egituraren barruko udalerri bakoitzean behar den lurzoru-erabilgarritasuna bermatzearen aldeko apustua egiten du, behintzat bertako biztanleria mantentzeko, udalerri horietako biztanleriaren exodorik ez egoteko, beste leku batzuetarantz, Egitamuaren indarraldian.

Horretarako, udal bakoitzak herri bakoitzak behar dituen etxebizitzak egin behar ditu, kontuan hartuta bertako biztanleria-sektoreen lorpen-gaitasuna; beraz, Babes Ofizialeko Araubidea erabili beharko du.

LAJetan adierazitako Ereduak sustatzen duen Lurralde Orekako Estrategiari erantzunez, Eskualde Egituraren barruko udalerriren batean, biztanleria mantentzeaz gain hazkunde hautakorra ere lortu nahi da; hain zuzen ere, beste eskualde-egitura batzuetatik (batez ere, Bilbo Metropolitarretik) iritsitako biztanleria hartzeko etxebizitza kopurua sortu nahi da.

4.– Inguru naturala errespetatzea.

Lurralde-antolamenduaren helburu nagusietariko bat baliabide naturalak ondo administratzea eta ingurumena babestea da.

LZEak garapen iraunkorrarekin duen konpromisoaren eraginez, ingurumen-balio urriagoko lurzoruen erabilera proposatu da; horretarako, ezarri diren irizpideetan, okupatu beharreko lurzoruak adierazten dira eta lurzoru horiek, horrenbestez, egoitza-ezarkuntzen proposamen berrietatik kanpo geldituko dira; lurzoru horien artean, urak hartzeko moduko eremuak (edozein itzultze-alditan) sartzen dira, balio estrategiko eta edafologiko handikoak baitira; beraz, Ibai eta Erreka Ertzen LESaren eskakizunak ugaritu eta lurzoru gehiago sartzen dira Babes Bereziko edo Gainazaleko Uren Babeseko kategorietarikoren batean.

Inguru naturala ahalik eta gehien babesteko, murriztu egin da horren erabilera; horrela, okupaziorako gehieneko eremuak ezarri dira eta horietatik kanpo ezin daiteke hirigintza-garapen berririk sortu; hortaz, babes oso handia ematen zaio inguru fisikoaren aldaketari, bai balio estrategiko handiko lurzoruei eta bai

El Modelo que propone este PTP apuesta por que todos los nuevos suelos de uso global residencial cuenten al menos con una reserva del 10% de la edificabilidad residencial del área para la ubicación de actividades económicas, entre las que se pueden encontrar además del industrial compatible otras como las de uso terciario comercial, de oficina y otros servicios de carácter dotacional privado, de usos tales como el educativo, sanitario, servicios sociales, deportivo y cultural u otros análogos.

3.– Mantenimiento de la población y equilibrio territorial. Fortalecimiento del sistema de ciudades.

El PTP apuesta por garantizar la disponibilidad del suelo necesario en cada uno de los municipios del Área Funcional para permitir al menos, el mantenimiento de su población, evitando el éxodo de la población de los núcleos existentes hacia nuevas localizaciones, en el periodo horizonte del Plan.

Para ello cada Ayuntamiento debe ejecutar las viviendas que cada población precisa, teniendo en cuenta la capacidad adquisitiva de los distintos segmentos de población existente y por tanto, acudiendo al Régimen de Protección Oficial.

En respuesta a la Estrategia de Equilibrio Territorial propiciado por el Modelo definido en las DOT, en alguno de los municipios del Área Funcional, además de mantener la población se prevé un crecimiento selectivo que consiste en un número de viviendas que acoge la población proveniente de otras áreas funcionales, principalmente de Bilbao Metropolitano.

4.– Respeto al medio natural.

Es uno de los objetivos principales de la ordenación del territorio la administración responsable de los recursos naturales y la protección del medio ambiente.

El compromiso por el desarrollo sostenible de este PTP le ha llevado a proponer la utilización de los suelos de menor valor ambiental y para ello, el establecimiento de unos criterios en los que se definen los suelos que no han de ser ocupados y que, por tanto, quedarían excluidos de las nuevas propuestas de asentamientos residenciales, entre los que se encuentran las áreas inundables en cualquiera de los tres periodos de retorno, por ser de alto valor estratégico y mayor valor edafológico, ampliando por tanto las exigencias del PTS de Márgenes de Ríos y Arroyos y los suelos incluidos en alguna de las categorías de Alta Protección o Protección de Aguas Superficiales.

Para proteger al máximo el medio natural, se ha restringido su utilización estableciendo unos ámbitos límites a la ocupación, fuera de las cuales no se pueden dar nuevos desarrollos urbanísticos, de lo que resulta una amplísima protección a la transformación del medio físico, tanto de los suelos agrarios de alto

inguru naturala antolatzen duten gainerako kategoriei dagokienez.

Landare autoktono interesgarrien okupazioaren mugetan proposamenak eginez gero, Arau honek 18.30 artikuluan definitutako irizpideak kontuan hartu beharko dira.

Okupazioaren mugako eremuek ez dute kolonizaziora behartzen, LZEaren indarraldian. Horien okupazioa Planeamenduak zehaztuko du, nahitaez okupatu beharrekoak ez diren eremu malguak baitira; nolanahi ere, aintzat hartu behar dira jardunean dabiltzan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko jardueren lehiakortasuna hobetzeko, eta, horrela, inguru naturalaren eta landa-inguruaren kalitatea bermatzeko.

5.– Garraio publikoari loturiko irisgarritasuna eta aukerako mugikortasun-moduak.

LZEak hiri trinkoaren printzipioak eta erabilera mistoak aplikatzea erabaki du, hiri-garapenaren oraingo joera batzuk zuzentzeko, joera horiek mugikortasun iraunkorraren aurkakoak baitira.

Ibilgailuen bideen arabera (hiriaren berezko egiturari jarraitu barik) sortu diren Jarduera Ekonomikoak irisgarritasunik gabeko uharteak dira orain, ibilgailu partikularretarako izan ezik, eta bideak eurak ere hesiak dira, gainerako irisgarritasun motetarako.

Egoera hori ikusita, egoitza-ezarkuntzetarako eta jarduera ekonomikoen ezarkuntzetarako lurzoru berriak aukeratzeko orduan, LZEak aintzat hartu du eremu horiek hiriaren gainerako zatiarekin artikulatzeko aukera, baita aukerako garraio-moduetarako iragazkortasuna ere (adibidez, oinezkoak eta bizikletak), horiek biztanlerik gehienen esku baitaude. Horrenbestez, halako garraioaren erabilera sustatzeko azpiegiturak garatu behar dira, ibilgailu pribatua bigarren mailan utzita, horren erabilera ez baita beharrezkoa hiriguneen barruko eta ondoko industrialdeetarako joan-etorrietarako.

Hiri-garapenei loturiko alderdi horiek ez ezik, garraio publikoa sustatzea eta ibilgailu pribatua baztertzea ere, izan ere, mugikortasun-arazoari erantzuna emateko zati osagarriak dira.

## I. ATALA
## EREDUAREN ESPARRU-PROPOSAMENA 16 URTERA

***41. artikulua.***– Eredua.

1.– Etxebizitza-beharrizanera hurbiltzeko, LZEak proposaturiko kalkulu-metodoaren helburua LZEak aurreikusitako hazkunde-eredurako egokia den egoitza-kuantifikazioa lortzea da.

valor estratégico como del resto de las categorías que ordenan el medio natural.

En el caso de que recayeran propuestas de ámbitos límite a la ocupación sobre áreas de vegetación autóctona de interés, habrán de tenerse en cuenta los criterios definidos en el artículo 18.3 de las presentes Normas.

Los ámbitos límites a la ocupación no obligan a su colonización en el periodo de vigencia del PTP. Será el Planeamiento el que concrete su ocupación ya que son ámbitos flexibles que no deben ocuparse necesariamente, ni tampoco en su totalidad y, en cualquier caso, teniendo en cuenta las explotaciones agroganaderas en activo con el objetivo del mantenimiento y mejora de la competitividad de las actividades agropecuarias y forestales como garantes del mantenimiento de la calidad del medio natural y rural.

5.– Accesibilidad vinculada al transporte público y modos alternativos de movilidad.

Este PTP ha optado por seguir los principios de la ciudad compacta y la mixtificación de usos, tratando de corregir determinadas tendencias actuales de desarrollo urbano contrarias a una movilidad sostenible.

Las Actividades Económicas que han nacido según viales rodados sin seguir una estructura propia de ciudad se han convertido en islas inaccesibles por otros medios de transporte que no sea el vehículo particular, siendo los propios viales barreras a cualquier otro tipo de accesibilidad.

Ante esta situación, el PTP a la hora de elegir nuevos suelos para asentamientos tanto residenciales como de actividades económicas ha tenido en cuenta la articulación de dichos ámbitos con el resto de ciudad y su permeabilidad a modos alternativos de transporte como el peatonal y el ciclable, accesibles a la mayoría de al población. Por ello, se han de desarrollar las infraestructuras necesarias para potenciar este tipo de transporte en detrimento del vehículo privado, cuya utilización resulta innecesaria para desplazamientos dentro de los núcleos urbanos y a los polígonos industriales adyacentes.

Además de estos aspectos relacionados con los desarrollos urbanos, resulta obligado enfocar el fomento del transporte público y la disuasión en la utilización del vehículo privado como partes complementarias de la respuesta a dar al problema de la movilidad.

## SECCIÓN I
## MARCO PROPUESTA DEL MODELO A 16 AÑOS

***Artículo 41.***– Modelo.

1.– Para aproximarse a la necesidad de viviendas, el PTP estima un método de cálculo cuyo objetivo es la obtención de una cuantificación residencial adecuada para el Modelo de crecimiento previsto por el PTP.

2.– Kalkuluko metodo hau etxebizitzaren beharrizan endogenoaren zenbatespenean oinarritzen da; beharrizan hori, berriz, biztanleriaren mantenamenduak eta familien batez besteko tamainaren murriztapenak (etxebizitza kopuruaren gorakada eragiten duen murriztapena) sortzen dute.

3.– Gainera, LAJetan zehazturiko Ereduaren eraginezko Lurralde Orekako Estrategiari erantzunez, LZEan ezarritako Lurralde Ereduak Kanpoko Berrorekako faktore bat jaso du kuantifikazioan; hain zuzen ere, Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egituratik iritsitako biztanleria hartzen duen etxebizitza kopurua.

***42. artikulua.***– Esparru-proposamena 16 urtera.

Beharrizanen kalkulua, LZEak ezarritako Ereduaren arabera, 16 urterako egin da, horixe baita erreferentziako esparrua 8 urterako (lege-aldia) beharrizanak Udal Planeamenduan jasotzeko, eta beraz, berori izango da aplikagarria.

***43. artikulua.***– Ereduaren kalkulua.

Kalkuluko metodoa honako osagai hauen batuketan oinarritzen da:

– Ereduaren hazkunde hautakorra (A).

– Barruko berroreka (B).

– Beharrizan endogenoak (C).

– Bigarren egoitza (D).

***44. artikulua.***– Ereduaren hazkunde hautakorra. A osagaia.

1.– Adierazitako aldagaien ebaluazioarekin eta azterketarekin bat etorriz, baita Bilbo Metropolitarreko LZEa (LAJak betetzen ditu) hedatzeko estrategien ondorioekin bat etorriz ere, Igorreko Eskualde Egiturari 450 etxebizitza esleitzen zaizkio.

2.– Hazkunde hautakorra (loteslea) edo kanpoko berroreka (aipaturiko osagai exogenoak osatzen duena), bestalde, etxebizitza kopuruan adierazten da, V. eranskinean («16 urterako Esparru-Proposamenaren Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa») jasotako taularen osagaitzat.

***45. artikulua.***– Barruko berroreka. B osagaia.

1.– B osagaia Eskualde Egiturako etxebizitza-beharrizanen Barruko Berrorekari dagokiona da. Barruko berroreka, horri dagokionez, beharrizanak udal mugartearen barruan betetzeko lurzoru nahikorik ez duten udalerrietako etxebizitza-eskariak beste leku batean kokatzearen ondorioz sortzen da, LZEan adierazitako kokaleku-irizpideak aintzat hartuta, eskari

2.– Este método de cálculo se basa en la estimación de la necesidad endógena de vivienda que viene dada por el mantenimiento de la población y por la disminución progresiva del Tamaño Medio Familiar y el incremento de nuevos hogares que ello supone.

3.– Además, en respuesta a la Estrategia de Equilibrio Territorial propiciado por el Modelo definido en las DOT, el Modelo Territorial previsto por el PTP decide incluir en su cuantificación un factor de Reequilibrio Externo que consiste en un número de viviendas que acoge la población proveniente de Área Funcional de Bilbao Metropolitano.

***Artículo 42.***– Marco-propuesta a 16 años.

La estimación de las necesidades, según el Modelo previsto por el PTP, se ha realizado para un horizonte de 16 años que constituye el marco de referencia para garantizar la satisfacción y plasmación en el Planeamiento Municipal de las necesidades a 8 años que es su periodo legal y, por tanto, el de aplicación.

***Artículo 43.***– Cálculo del modelo.

El método de cálculo se basa en la suma de los siguientes componentes:

– Crecimiento selectivo de Modelo (A)

– Reequilibrio interno (B)

– Necesidades endógenas (C)

– Segunda residencia (D)

***Artículo 44.***– Crecimiento selectivo del modelo. Componente A.

1.– En consonancia con la evaluación y análisis de las variables expresadas, así como con las implicaciones derivadas de las estrategias de difusión del PTP de Bilbao Metropolitano, que sigue la directriz de las DOT al respecto, según el reparto que establece aquél, al Área Funcional Igorre se le asignan 450 viviendas.

2.– Este crecimiento selectivo, de carácter vinculante, o reequilibrio externo, que conforma el componente exógeno enunciado se expresa, en número de viviendas, como un componente de la tabla recogida en el anexo V «Cuantificación de viviendas del Modelo en el Marco - Propuesta, a 16 años».

***Artículo 45.***– Reequilibrio interno. Componente B.

1.– Se define como Componente B el correspondiente al Reequilibrio Interno de las necesidades de vivienda del Área Funcional. En este sentido el reequilibrio interno se produciría como resultado de la relocalización de las demandas de vivienda de los municipios que no dispusieran de suelo suficiente para resolver sus propias necesidades en el interior de su

hori edukitzeko gaitasuna duten lurzoruen soberakina dutenen kasuan.

2.– Igorreko Eskualde Egituraren kasuan, lurzoru erabilgarriei eta horien ezaugarri naturalei buruz egindako ikerketak kontuan hartuta, esan daiteke udalerri bakoitzak harrera-gaitasun nahikoa duela, bere beharrizanei erantzuna emateko, eta Barruko Berrorekako B osagaiari balio nulua edo zeroren parekoa ematen zaio.

***46. artikulua.***– Beharrizan endogenoak. C osagaia.

1.– C osagaiak udalerrien beharrizan endogenoak adierazten ditu, eta honako honek eragindako etxebizitza-beharrizanen hazkundearen ondoriozkoa da: familien batez besteko tamainak hurrengo urteotan izango duen apurka-apurkako murriztapena. Horrenbestez, LZEaren hipotesia mantendu arren (Egitamuaren indarraldian biztanleria mantentzea), etxebizitza-eskaria gero eta handiagoa izango da.

2.– C osagaiaren emaitzak honako formula hau aplikatuta lortu dira:

C = P/(TMF-0.48) - P/TMF

Formula horretan P eta TMF udalerriko biztanleria eta familien batez besteko tamaina dira, 2005ean. Biztanleen datua aldakorra denez, osagai horren emaitza ez da loteslea, baina bai da hori kalkulatzeko adierazitako formula. Nolanahi ere, TMF urtean 0,03 murrizten bada, zehaztapen loteslea da.

3.– Adierazitako C osagaiak osaturiko beharrizan endogenoa, etxebizitza kopuruari dagokionez, V. eranskineko taulan adierazita dago: «16 urterako Esparru-Proposamenaren Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa».

***47. artikulua.***– Bigarren egoitza. D osagaia.

1.– Osagai honek, LAJetan bigarren egoitzako hazkundeetarako finkaturiko udalerriei, proposaturiko Lurralde Ereduaren araberako dimentsionamendua eskaintzen die, eskaintzari dagokionez.

2.– Eskualde Egituran, izaera hori eduki dezakeen udalerri bakarra Artea da, Lurraldean Sartzeko Gunetzat eta eremuko gaitasunik handieneko udalerritzat. Beraz, guztira 13 etxebizitza esleitzen zaizkio, bigarren egoitzako osagaitzat, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu Sailetik iritsitako datuen arabera.

término municipal, teniendo en cuenta los criterios de localización expresados en este PTP, en aquellos que dispusieran de un excedente de suelos capaces de albergar esta demanda.

2.– En el caso del Área Funcional de Igorre los estudios realizados sobre los suelos disponibles y las características naturales de los mismos, permiten asegurar que cada uno de los municipios que la componen tiene suficiente capacidad de acogida para dar respuesta a sus propias necesidades, otorgando al componente B de Reequilibrio Interno un valor nulo o igual a cero.

***Artículo 46.***– Necesidades endógenas. Componente C.

1.– El Componente C refleja las necesidades endógenas de los municipios y se determina por el incremento de las necesidades de vivienda derivado de la tendencia a la disminución progresiva del tamaño medio familiar prevista para los próximos años. Esto significa que aún manteniéndose la hipótesis por la que apuesta este PTP de mantenimiento de la población en el periodo horizonte del Plan, o incluso disminuyendo ésta, la demanda de vivienda seguirá en aumento.

2.– Los resultados del componente C se han obtenido a partir de la aplicación de la siguiente fórmula.

C = P/(TMF-0.48)- P/TMF

Donde P y TMF son la población y el tamaño medio familiar municipales en el año 2005. Dado que la población es un dato variable, el resultado de este componente no es vinculante, pero sí lo es la fórmula indicada para el cálculo del mismo. En todo caso, la disminución del TMF cifrada en una cuantía de 0,03 por año constituye una determinación de carácter vinculante.

3.– La necesidad endógena que conforma el componente C enunciado se expresa, en número de viviendas en la tabla recogida en el anexo V «Cuantificación de viviendas del Modelo en el Marco - Propuesta, a 16 años».

***Artículo 47.***– Segunda residencia. Componente D.

1.– Este componente asigna a los municipios fijados por las DOT para crecimientos de segunda residencia un dimensionamiento de esta oferta de acuerdo con el Modelo Territorial que se propone.

2.– En este Área Funcional el único municipio susceptible de ostentar este carácter es Artea, en su calidad de Núcleo de Acceso al Territorio y de municipio con mayor capacidad del área. Por este motivo se le asigna un total de 13 viviendas como componente de segunda residencia, según datos que provienen del Departamento de de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

3.– Bigarren egoitzaren osagaiak eraturiko hazkunde loteste hori, etxebizitza kopuruaren arabera, V. eranskineko taulan jasota dago: «16 urterako Esparru-Proposamenaren Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa».

***48. artikulua.***– Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa, 16 urterako esparru-proposamenean.

1.– Azaldutako osagaien batuketa (A, B, C eta D), izan ere, LZEak 16 urteko aldirako hartu duen Ereduaren arabera aurreikusitako etxebizitza kopuru garbiaren kuantifikazioa da, Igorreko Eskualde Egiturarako.

2.– Aurreikusitako etxebizitza kopuru garbi horri aurre egitean, helburua ez da kopuru hori etxebizitza berria eraikita soilik lortzea; izan ere, kasuan kasuko udal-planeamenduak azaldutako estrategiak erabilita bermatu behar du kopuru hori, eta, estrategia horien artean, aintzat hartzen dira lehendik dagoen etxebizitzaren erabilera eta eraikitako ondarearen optimizazioa.

3.– LZEaren indarraldirako aurreikusitako etxebizitza kopuru garbia V. eranskineko taulan adierazita dago: «16 urterako Esparru-Proposamenaren Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa».

II. ATALA
8 URTERAKO UDAL APLIKAZIOAN BAIMENDUTAKO GEHIENEKO ETXEBIZITZA KOPURUA

***49. artikulua.***– Ereduaren udal aplikazioa.

1.– Bere Planeamendu Orokorra berrikusten duen udalerri bakoitzak kalkulatu egin beharko ditu Lurraldearekiko Zati Egitamuak zortzi urterako baimentzen dizkion etxebizitzak.

2.– Udal Planeamenduari Esparru-Proposamenaren aplikazioa ahalbidetzeko, esparru hori Planeamenduaren aldiari (zortzi urte) egokitu behar zaio.

***50. artikulua.***– Udal aplikazioan baimendutako gehieneko etxebizitza kopuruaren kalkulua.

1.– Gehieneko etxebizitza kopurua 8 urteko aldirako egoitza-ereduaren arabera kuantifikatzeko, Esparru-Proposameneko taulak aldi horretara egokitzeko aukera ematen duen metodoa behar da.

2.– Udal-aplikazioan baimendutako gehieneko etxebizitza kopurua, Esparru-Proposamenaren kasuan bezala, honako osagai hauek batuta lortuko da:

– Ereduaren hazkunde hautakorra (A).

– Barruko berroreka (B).

– Beharrizan endogenoak (C).

